

## UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan publikitate, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

Batzordeak 2023ko martxoaren 28ko bilkuran 2022ko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen aho batez, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisisa.

Horiek horrela direla, Batzordeak onartutako memoria horren berri Gobernu Batzarrari eta Udalbatzari eman behar zaio. Azaldutakoagatik:

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Título IX las Comisiones del Pleno y de modo específico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Órgano de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

De conformidad con dichas Normas, el Presidente elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.

La Comisión, en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2023, ha aprobado por unanimidad la Memoria correspondiente al Ejercicio 2022 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.

Conforme a lo indicado, de la Memoria aprobada en la Comisión debe darse cuenta a la Junta de Gobierno Local y al Ayuntamiento Pleno. Por lo expuesto:



Batzordeak 2022ko ekitaldiari dagokionez onartutako Memoriaren berri eman da. Memoria horretan Donostiako Udalaren Tokiko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Kontrol eta Jarraipenerako Batzorde Bereziak egindako jarduketak jasotzen dira. Batzorde hori Udalak berak, haren erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek eta udal-sozietate publikoek osatzen dute.

Se da cuenta de la Memoria aprobada por la Comisión correspondiente al Ejercicio 2022 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del Ayuntamiento de San Sebastián integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Publicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales.

Donostia, 2023ko apirilaren 13a

San Sebastián, 13 de abril de 2023

Izpta.: Charo García

Udalaren Barruko Kontrolaren  
Arduradun Kudeatzailea

Izpta.: RICARDO BURUTARAN

Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren Burua.  
Presidente de la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación